

Familia estimatua:

Eskutitz honen bidez, Tolosako nerabeentzako programak garatzeko koordinazio-mahaia osatzen dugunok gure kezka helarazi nahi dizuegu, Inauterietan nerabeek egiten duten alkohol kontsumoak sortzen duen egoera dela-eta.

Azken urteotan egin diren esku-hartzeetan ikusten da Astelenitan nerabe-talde ugari etortzen direla Inauteriaz gozatzeko asmoarekin, baina, sarri, gozatze hori lotuta egoten da alkohol kontsumo neurrigabe eta desegokiarekin.

Badakigu denon lana dela kontsumo honen prebentzioa, eta saiatu behar dugula, mezuak ematerakoan eta esku hartzerakoan, modu koordinatuan jokatzeko esparru desberdinetatik: eskola, familia, aisialdia...

Horregatik, hemen doazkizue hainbat gomendio, familiaren alorrean orientabide izan daitezkeenak, eta, seguruenik, dagoeneko erabiltzen ari zaretenak:

- KOMUNIKAZIOA

Familiako harremanetan, entzutea eta komunikazio aktiboa izatea funtsezkoak dira, eta lagundu egiten dute nerabeek beren esperientziak, asmoak, planak... konpartitu ditzaten.

Komeni da zuzenean hitz egitea alkoholari eta beste droga batzuei buruz; ez da beldurrik izan behar gai hauei buruz familian aritzeko eta garbi azaltzeko adin horretan zer arrisku dituen botiloak. Lotura honen bidez, informazio gehiago eskura dezakezue alkoholari eta bere eraginei buruz. www.kolokon.com

Egoera ezegokiak gertatzen direnean, ekintza kritikatu behar da eta ez nerabea bera pertsona bezala

- FAMILIAKO ARAUAK

Garrantzizkoa da familian arauak edo erregelak ezartzea, bai alkoholaren edo beste droga batzuen kontsumoa debekatzearen inguruan, bai etxetik irteteko eta itzultzeko ordutegiaren inguruan, bai zenbateko paga edo zenbat diru eman erabakitzekeo...

- EREDU ONA

Familiak alkoholarekiko edo beste droga batzuekiko dituen ohiturek eta jarrerak eragin handia dute seme-alabek kontsumo horri buruz garatzen duten ideian.

Aisialdi positiboak, eskolako ekintzek edo jolas-jarduerek, eredu ona izateaz gain, aberastu egiten dute denbora libreko kontsumo desegokiarekiko alternatiba bezala.

- TALDEAREN PRESIOA

Berdinen edo lagun taldeak, nerabeentzakoan, garrantzi handia dauka.

Aurreko gomendio horiek familian garatu dituzten nerabeek hobeto eusten diote alkohola kontsumitzeko edo botiloa egiteko lagun-taldeak izan dezakeen presioari.

Espero dugu aholku hauek kontuan izatea, eta zuen seme-alabek Tolosako Inauterietara etortzea erabakitzen badute, festaz goza dezatela, baina kontsumo desegokirik gabe.

Inauterietako egitaraua kontsultatzeko lotura. <http://tolosakoudala.eu/index.php/eu/inauteriak.html>

Gure aldetik, lanean jarraituko dugu prebentzio- eta arreta-lanetan, helburua lortuko dugulako asmo sendoarekin.

TOLOSAKO NERABEENTZAKO KOMUNITATE ESKU-HARTZE PROGRAMA